



## BEZERO KANALA

Gure enpresak bi modu erabiliko ditu guk egindako janaria, bezeroei saltzeko. Alde batetik, produktuak denda fisikoan salduko ditugu. Bestalde, gure web orritik produktuak erosteko aukera edukiko dute, ondoren, haien etxeetara eramango ditugu.

Sare sozialak ere edukiko ditugu.



Gure enpresako web orrian, produktuak ikusteko, aukeratzeko edo erosteko aukera izango dute. Behin eskaria egiten dutenean, web orrian haien etxeko helbidea jarri beharko dute eskaria etxera iristeko. Ordaintzeko aukera bertan izango dute, bestela eskaria eramaten dien pertsonari ordaindu dezakete momentuan bertan.



Sare sozialetan Instagrama edukiko dugu eta hemen gure berriak jarriko ditugu, edozein hamburgesa berri, monologo edota karaokei buruzko berriak izango dira. Tabernako edozein gauza jarriko dugu jendea informatuta egon dadin.

Edozein gauza behar badute gurekin kontaktua izango lukete.

Publizitate-kanpaina bat egingo dugu jendea erakartzeko eta gure tabernara pixkanaka jendea etortzeko.